

ALKATEAREN PROBIDENTZIA

2024ko martxoaren 20ko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPEN bidez argitara eman zen enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2024ko dirulaguntzen deialdia. (EHAA 2024ko apirilaren 2a, asteartea).

Oñatiko Udalak 4 pertsona kontratatuko ditu diru-laguntza deialdi honen bitartez:

- 2 kale garbitzaile, 4 hilabetetarako, %100 jardunaldian.
- 2 administrari laguntzaile, 6 hilabeterako, %60ko jardunaldian.

Deialdi honen esparruan burutuko diren kontratazioek honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2024ko dirulaguntzen deialdiaren 2. artikuluko 4.1. puntuan (1. Mota.- Enplegua sustatzea) zehazten diren baldintzak betetzea.
- Oñatin erroldatuta egotea.

KALE GARBIKETAKO PEOI lanposturako jarraian zehazten diren **ezinbesteko baldintzak** ezarri dira:

- B motako gidabaimena izatea eta ibilgailuak gidatzeko inolako eragozpenik ez izatea.

Baloratu beharreko baldintzei dagokienez honako hauek izango dira:

- Euskaraz oinarrizko maila bat izatea.
- Antzeko lanetan esperientzia izatea.
- Langabezia egoeran igarotako denbora.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN dut:

1.- Enplegu Zerbitzu Publikoei eskatzea lan-kategoria eta baldintzak betetzen dituen hautagaiak aukeratzea.

2.- Honako profil hau eskatzen da: **Kale garbitzailea, Zerbitzu Sailera atxikitua.**

- Lan kontratu mota: Okupagarritasuna eta laneratzea hobetzeko kontratua.
- Hileko soldata gordina: Kale garbitzaile lanpostukoak izango dira.

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Langabezia egoeran igarotako denbora (gehienez 5,4 puntu):

Azken 18 hilabetetan langabezia egoeran egondako denbora baloratuko da, langabezia egoeran egondako hilabete bakoitzeko 0,3 puntu emanda. Beraz, irizpide honetan puntuazio maximoa 5,4 puntu izango dira.

3.2 Lanbide-esperientzia (gehienez 3,6 puntu):

Garbiketa arloko esperientzia baloratuko da; 0,2 puntu kale garbiketan egindako hilabete bakoitzarengatik eta 0,1 puntu beste garbiketa mota batzuetan jasotako esperientziagatik (eraikinen garbiketa, garbiketa industrial, ...). Beraz, irizpide honetan puntuazio maximoa 3,6 puntu izango dira.

3.3 Euskara maila

Euskara maila baloratzeko Lanbideko Curriculumeko hizkuntzen ataleko zehaztutako hizketa maila hartuko da kontuan eta honela emango da puntuazioa:

- Goi maila: 1 puntu.
- Erdi maila: 0,5 puntu.
- Oinarritzkoa: 0,25 puntu

4. Epaimahai kideak:

- Izaskun Querejeta. Antolakuntza eta giza baliabideen teknikaria.
- Unai Pinto. Kale Garbiketako arduraduna.
- Unai Kortabarria. Sozioekonomia saileko teknikaria.

Oñatin, 2024ko azaroaren 7an.

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Enplegu plana 2024. Alkatearen probidentzia - Kale garbitzaileak